

# RENO-KO EUSKAL MINTEGLIAREN XXV. URTEBETETZEAN

*WILLIAM DOUGLASS*

---

**A**ntropologia sozialean aire berriak nagusitzen doazen garai hauetan erreflexibitatea lehen ez bezala eskatzen zaigu. Obserbatzaile eta obserbatuaren arteko harremanak, testuaren azpiegituran dauden aurreiritziak, idazleak non finkatzen duen bere autoritatea, etab., aztergai bihurtu dira. Era honetan etnografigintzan ezkutuan gelditzen ziren zenbait alderdi begi-bistan jarri behar dira gaur. Narratzaile bakarti jakitun ahalguztidunaz ez gara jadanik fidatzen; gaur egun nahiago dira ahots desberdinak, era askotakoak, euren artean elkartezinak sarritan, eta eurek beren erara kontatuak.

Antropologoak kezkatuak dauzkaten arazoak dira horiek; nere helburua ez da horietaz aritzea, baina hala ere, nere gaur-

ko iharduna ulertzeko ingurune egokia eskaintzen dute. Zere n “Basque Studies Program” edo Euskal Mintegiaren hogeitabostgarren urtebetetzea ospatzen dugun une honetan galdera hau egiten diot neure buruari: zer eragin izan du berak euskal-amerikar kulturaren? Hau egitean narzismoaren arriskua dut, ispiluzko gela batean galdurik gertatzea. Baina nahi dut ispilu bat edo bitan begiratzea, besterik ezean, nere memorian bakarrik dauden gure hastapen-urteetako gertakizunak historiaren artxiboan uzteko. Nere azken helburua, ordea, ispilu honen bitartez euskal-amerikar komunitatera itzultzea da.

## EUSKAL MINTEGIAREN MUGAK

Ez da erraza Euskal Mintegiaren mugak zehazki seinalatzea. Hogeitabost urtetan zehar ehundaka, hobeki milaka, pertsonen esfortzuen sumaketa da neretzat. Beren ekintzek eta eraginek unibertsitate hau guztiz gainezkatu dute. Euskal Herriatik kanpo euskal kulturaz dagoen ahalegin akademiko serioena izaki, dimentsio nazionala eta internazionala hartu zituen. Francoren diktadura-garaiaren eraikia izateak garrantzia erantsi zion.

Euskal Mintegia, neretzat, Euskal Herrian ikasten urtebete pasa ondorengo estudiante amerikarraren bizitza aldatua da; argitaratutako gure hogeitamar libururen baten irakurlearen amets pribatua; esfortzu handiz bildutako milaka liburuak, bakoitza harri bat euskal liburutegi osatuenetako baten erai-kuntzan; beren dirua eta denbora Mintegiari eskaini dioten pertsonen boluntarismoa; bertako langileen dedikazioa, bere n obligaziotik guztiz areagokoa; unibertsitate honetako eta Nevada Estatuko ordezkarien laguntza tinkoa, mintegi honen kontzeptua bera erabat arrotz eta esoteriko gisa ikusia izan zitekeenean; guregan sinetsi duten fundazio pribatu eta publiko zenbait; halaber, gure beka-eskakizunei sarritan erantzun dion Euskal Gobernuua. Aipamenetan jarrai nezake luzaroan. Guzti horiek gogora ekarri ordez hasierako urteetara itzuliko naiz, eta batipat hirukote sortzailearen —Robert Laxalt, Jon Bilbao eta hiruron— artean izan genuen harremanaz.

Ikuspegi historiko murriztenaren arabera, zilarrezko urtebetetzea uda honetan beteko genuke, 1967ko ekaina baitzen Wendall Mordy-k —*Desert Research Institute*-ko zuzendariak— enplegatu ninduenean. Ikuspegi zabalago batek 1961ean Renon egindako bilera batean koka lezake: bertan, jaioberria zen *Desert Research Institute*-k hiru antropologo inbitatu zituen bere adar baten ikerketa-programa eratzeko. Robert Heizer, Berkeley Unibertsitatekoak; Fred Eggan, Chicago-koak, eta Omer Stewart, Colorado-Boulder-ekoak, Euskal Mintegi bat sortzea proposatu zuten, Institutuari enfasia guztiz berezia emango ziona, beste unibertsitate amerikarrek guztiz ahazturik zutena. Euskaldunak Nevadan kokaturik zeuden, euskal-amerikarren kontribuzioa bertako historiari apenas eza gutzen zen, eta gainera, Europako euskaldunek enigma ugari eskaintzen zituzten etnologian, prehistorian, antropologia fisikoan eta hizkuntzalaritzan.

Institutuak gomendioak onartu zituen, baina zaila zitzaion haiek betetzea. Chicago-ko Unibertsitatean ikasle nintzen ni orduan eta Eggan-ek, jakinaren gainean ni Euskal Herrira etortzeko nintzela nere lana egitera, Nevadako planen berri eman zidan. *University of Nevada Press*-eko zuzendaria zen Robert Laxalt-ekin harremanetan jarri zen Mordy, proiektuan parte har zezan. Hasieratik Robert-ek entusiasmo handia azaldu zuen baina, aldi berean, garbi utzi zuen, bere euskal jatorria eta bere aita artzainaren bizitza kontatu izan arren (*Sweet Promised Land*), bera ez zela euskal akademiko bat.

Liburu horren 1957ko argitalpenak euskal-amerikar espezializazioaren literatur bozemaile bihurtu zuen Robert. Itzalita ziruditen euskal kultur txinarren lehen indarberritzea bultzatu zuen. Ehundaka eskutitz jaso zituen Mendebaleko Amerikako euskaldunengatik beren historiari ahotsa eman ziolako. 1959an, kasino baten jabe zen Dick Graves-ek lehenengo aldiz euskal jaialdi bat eratzeko erabaki zuenean, Robert-en eskutitz-zerrenda zen euskaldun sakabanatuen arteko lotura bakarra. Inork ez zekien zertan zetzan euskal jaialdi bat. Egitarauan “euskaldun” zer zen adierazteko ere, entziklopedia batean begiratu behar izan zuten.

Ordurako Robert Europara etorri eta bere jatorriaz gehiago jakiteko asmotan zen. Urtebete igaro zuen Euskal Herrian Kongresuko Liburutegirako euskal bibliografia jasotzen eta beste nobela baterako gaiak biltzen; Euskal Mintegi posiblearentzako lehen oinarri izan zitezkeen materialen bila ere aritu zen. Honela lortu zuen hiltzear zegoen Philippe Veyrin euskaltzale ezagunaren liburutegia eskuratzeko baimena. Donibane Garazin bildu nintzen Robert-ekin eta lehenengo aldiz hitz egin genuen nere Reno-ra itzultzearen posibilitateaz Etxalar eta Murelagako ikerketak burutu ondoren.

Euskal Mintegia eraikitzeke arduradun gisa nitaz fido izateaz harro sentitu banintzen ere, banituen nere zalantzak, eta lehenbizikoz eskaini zidatenean, 1966ko gabon-jaietan, ezetz esan nuen. Neure tesia artean amaitzeke nuen, neure jaioterri itzultzeaz sendimendu kontrajarriak nituen, eta Margaret Mead-ekin harremanetan zegoen beste norbaitekin lan egiteko eskaintza nuen. Azkenik, Robert Laxalt eta Warren D'Azevedo-rekin lan egiteko proposamenak bultzatu ninduen Reno-ra. Beste arrazoi nagusi bat euskal kulturarekin sentitzen nuen konpromezu pertsonala zen. Guztiz abertzaleak ziren lagun-minak egin nituen Euskal Herrian; hauen kuraia eta sakrifizio pertsonalak mirestera iritsi nintzen. Reno-ko Euskal Mintegia bultzatzeak benetan errespetatzen nuen kausa bat, nahiz eta ez nerea izan, laguntzeko bidea ematen zidan.

Graduatu eta astebetera, 1967ko ekainean, nere lan berria hartzeko nintzen. Ez enplegatu nindutenek, ezta nik neuk ere, genekien Euskal Mintegi batek zer izan edo egin behar zuen. Gure lehen bilerako Mordy-ren hitzak datozkit gogora: "Tituluren bat eman beharko dizugu. 'Zuzendari' ez da egokia inork ez baitu zuretzat lan egiten. 'Koordinatzaile' edo antzeko zer-bait deitu beharko dizugu. Gero alda dezakegu programa martxan jartzen denean." Gaurdaino gordetzen dudan titulu mai-tea dut hauxe.

Hasiera alfer eta kontenplazio ugarikoa izan zen uda hura. Beken bidez atera nahi zen programa aurrera. Baina zer proposa zitezkeen horretarako? Hori zen arazoa. Alderdi onean, Veyrin-en bilduma laster iritsi zen; unibertsitateko liburutegiak \$6.000 jarri zituen, gero Mintegiak behin martxan zegoenean

ordaintzekotan. Lehen uda hartan zenbait euskal jaialditara joan nintzen, gure Euskal Mintegiaren berri euskaldunei emateko, eta bide batez ikerketa berriren bat bideratzeko. Nahiz eta hemen hazia izan, neuk ere, nevar dar gehien antzo, ezer gutxi nekien euskal-amerikarrez. Nere eskolako lagun ziren Harvey eta Jose Gastanaga beti italiartzat eduki nituen!

Bitartean, Mordy-k euskal-amerikar komunitatera hurbiltzea proposatu zuen dirua biltzeko kanpaina eratuz. Hurrengo bi urteetan *Desarch Research Institute*-k \$40.000 inguru galduko zituen, nere soldata eta bidai gastuak zirela medio, \$10.000 biltzeko. Batera eta bestera ibili nintzen eta harreman ugari egin nituen, baina dirurik apenas. Zuzenean dirua eskatzeko aurpegirik ez nuen, eta gutxik erantzuten zioten nere tonu sotilari. Puntu gorena Reno-n eraturako bilera bat izan zen: hogeitau euskaldun rantxero aberatsenei gonbitea egin zitzaien eta unibertsitaterako kantzelariak Euskal Mintegiaren diru-beharrak azaldu zizkien. Ondorioz ehundaka dolar batzuk besterik ez genituen jaso. Baina, ironikoki, bileran parte hartu izan ezin zuten beste bi euskaldun (Gene Gastanaga eta Alfrida Poco Teague) eta hauek bultzatutakoei esker \$10.000 lortzera iritsi ginen.

Bigarren urtearen erdialdean Jon Bilbao ekarri genuen Reno-ra hizlari gisa. Ordurako asperturik eta kulpabilizaturik nengoen nere diru-biltzearen porrotaz. Irakasle-lanpostu erregular bat izatea tentagarria zen eta erraza nuen lortzea. Desertuko Institutuaren laguntza bagenuen baina ez zen betirako izango. Bere bisitaldian zehar Jonekin elkarrizketa ugari izan nuen; Mintegiaren kontzeptuan sinesteaz gain, ideia konkretuak zituen. Haiei esker, berriro ere fedea berreskuratu nuela esango nuke. Abiatu aurretik Reno-ra etortzea kontsideratuko al zukeen galdetu nion eta baietz erantzun zidan. Arrazoi nagusia —zioen berak— telefonoz neuk eginiko dei bat zen: liburutegiko zuzendariari eskatu nion, Jonek aipatu ondoren, euskal nazionalismoari buruz Euskal Herrian 500 dolarrez mikrofilmatua izan zitekeen dokumentu-bilduma zegoela, eta zuzendariak telefonoz baiezeko erantzuna eman zuen.

Wendall Mordy-rekin bildu nintzen eta bakarrik ezin nuela jarraitu adierazi nion. Jonen berri eman nion eta bera izan

zitekeela Euskal Mintegia aurrera ateratzeko esperantza bakarra adierazi. Mordy-k bi galdera egin zizkidan. Lehenik jakin nahi zuen Bilbao lehen mailakoa ote zen. Baietz esan nion. Ziur egoteko erantsi zuen berak, zeren “lehen mailakoek lehen mailako jendea enplegatzen dute; bigarren mailakoek, aldiz, hirugarren mailakoak enplegatzen dituzte”. Bere bigarren galdera ustegabekoa izan zen: “Lanik egin al duzu?” Nere bidaien berri ematen hasi nintzaion baina moztu egin zidan esanez: “benetako lana egin al duzun esan nahi dut”. Iluntzetan nere masterreko tesia —Murelagako ikerketa— berrikusten ari nintzela aitortu nion, norabait aurkezteko asmotan liburu gisa argitaratzeko. Bere erantzuna: “Ondo, ez ahaztu zer den benetan garrantzizkoa”.

Mordy bat zetorren Jon enplegatzeko, baina ez irakasle erregular gisa, konsultatzaile gisa baizik. Baimena eman zidan hilean \$1.000 dolar bederatzi hilabeteetarako eskaintzeko, eta orduan ikusiko zen berriro kontratua. Jonek inolako zalan-tzarik gabe onartu zuen. Bere biografiak bakarrik esplika lezake zergatik arriskatu zuen era honetan bere segurtasun pertsonala. Jon Madrileko Unibertsitatean Erdi Aroko Historian ikasle zen Gerra Zibila hasi zenean (Caro Baroja laguna Aintzinako Historian zen bitartean); Euskal Herrira itzuli zen armadan parte hartzeko eta ofizial egin zuten. Gero atzerrira lagundu zien Euskal Gobernuako kideei, lehenik Paris-era, gero Jose Antonio Agirre-rekin New York-era Nazio Batuetan euskal subirotasuna onetsia izan zedin saiatuz. Puerto Rico-n jaioa izanik, hiritar amerikarra zen eta ingelesa hitz egitea ondo zetorkion euskal delegazioari. Euskal nazionalismoari Jonek ia erabateko dedikazioa zion. Agirre-k Boise-ra bidali zuen hango euskal-amerikarrak abertzaletasunaren kausara erakartzeko. Urtebete han alferrik egin ondoren, Berkeley eta Columbia Unibertsitateetara joan zen ikastera. Bien bitartean bere ikerketetarako bibliografia osatzen hasi zen, bizitza osorako grina bihurtuko zitzaiona.

Amerikan sinestun izan da Jon, 1950eko hamarkadaren hasieran base militarren truke Estatu Batuek Francoren errejimenen onetsi ondorenean ere. Horregatik zenbait abertzalek, ezkertiarrek batez ere, CIAkotzat jo izan dute sarritan. Hala ere, EAJren bitartekari izaten jarraitu zuen. 1960an Franco-k

Espainiatik bidali egin zuen. Estatu Batuetara itzuli zen, dirua irabazteko gaztelania irakasten zuelarik. Maryland-eko ikastetxe batean zegoen irakasle nik aurkitu nuenean. Bere interes akademiko eta politikoak bateratzeko parada ematen zion Joni Reno-ko inbitazioak. Aldi berean, bere *Eusko Bibliographia* osatu eta argitaratzeko asmoa eta luzarora ahalegin bibliografiko iraunkor bat instituzionalizatzeko aukera ere eskaintzen zizkion.

Beraz, 1968aren azkenaldera, triunbirato bat ginen Euskal Mintegiaren kontzeptuaren inguruan, baina bere misioa zein ote zen garbi jakiteke artean. Bakoitzak bere egitaraua zuen. Robert Laxalt-ek Nevadako Pentsaren baitan Euskal LiburuSorta sortu nahi zuen. Bere bibliografiaz gain, Jonek ez zuen asmo akademikorik; aktibismo politikoan zuen interes handiena, eta Mintegiak euskara Estatu Batuetan gordetzen ahalegindu behar zuela uste zuen, euskal kulturak lurralde haietan bizirik iraun zezan; Amerikarrei euskal kulturaren berri eman behar zion, eta bide bat ireki behar zuen Mundu Berri eta Mundu Zaharreko euskaldunen artean elkarrenganako harreman dialektiko aberaskorra sortuz.

Nik, ordea, euskal kultura eta abertzaletasuna erabat estimatu arren, uste nuen arriskutsuegia gerta zitekeela euskaldunen kausak serioegi hartu eta bertan murgiltzea. Lehenik, objektibitatearen eta ekintzaren arteko muga galtzean, gure errespetagarritasun akademikoa zalantzan jarriko genukeelako. Bigarrenik, ekintza eta abokatutza-lanak pertsona eta talde konkretuekin bat egingo gintuzkeelako, eta gure etorkizuna hauen garaipen edo porrotei uztarturik suertatuko zelako. Hirugarrenik, ikerketa adierazkorrik burutzekotan, Mintegiak bere gaietatik zertxobait urrundua egon behar zuela uste nuen; honetan antropologoen jarrera besterik ez nuen jarraitzen, zeintzuk ikertzen ari diren gizartearen partaide sentitu behar baitira, baina bertako bihurtu gabe. Atzera begiraturaz, Jon eta biok, elkarren osagarri egokiak ginela iruditzen zait. Bere kasa utzita, nere ustez, Jonek Mintegia maldan behera eramango zuen, beste ikerketa-zentru etniko askori gertatu zitzaaien bezala. Erabaki guztiak nere eskuetan egon balira, ahalegin akademiko eta esoteriko hutsetan geldituko ginatkeen segurue-

nik. Bi gidari zituen autoa bezala ginen, Jonek oina azelera-tzailean eta nik frenoan genituela.

Oso desberdinak ginen hiru pertsonen egitarauak ikusirik ezer eraiki ote zitekeen pentsa liteke. Baina alderantziz gertatu zen eta konbinaketak nahikoa indar hartu zuen. Robert-ek begirune handia zuen euskal-amerikarren artean eta bere presentziak bapateko sinesgarritasuna eman zion Mintegiari. Bere familiak duen pisu politikoari esker, unibertsitate eta estatuko ordezkarien arreta irabazi genuen. Nevada Unibertsitate P rentsako zuzendari gisa, bera zen pertsonarik egokiena gure a rgitalpenak bideratzeko. Nik, nere aldetik, unibertsitate on bateko doktoradutza nuen interesa pizten zuen gai batean; Murelaga eta Etxalarko lanak argitaratu ahal izan nituen eta mundu akademikoak euskal gaien berri gehiago izan zuen. Mintegiak hasieran beken bidez iraun behar zuen, unibertsitateko egitarau bihurtu eta dirubide erregular bat lortu arte, eta hauek eskatzea zen nere beste lan nagusia; azkenik, 30.000 dolarreko bat lortu nuen Mendebaldeko Amerikan euskal etni-zitatea ikertzeko, eta honekin ordaindu nuen nere soldata eta Jonenaren zati bat. Jonek, berriz, bibliografo gisa mundu guztia-kin zituen harremanak eta bazekien zertan ari zen edonor. Bere obra argitaratzen hasi zenean Mintegiaren izenak goraka egin zuen. Euskal liburu-bilduma osatzen ere hondoraino sartu zen, gure lehen liburuzaina bera izaki. Euskal liburutegia osatzeko pertsona egokiagorik aurkitzea ez zen erraza. Atzerriko ikasketa-kurtsuak ere Jonen proiektua izan zen, alegia, amerikar ikasleak Euskal Herrian urtebete ikasten igarotzea. Bera izan zen lehena euskara irakasten erakunde honetan. Hegoamerika eta Europako euskal nazionalistekin zituen harreman ugariak erabakiorrak izan ziren gaur egun euskal munduarekin ditugun loturak finkatzeko.

Gure bulegoak hasieran Desertuko Institutuan genituen. Euskal liburutegia unibertsitateko liburutegiko bilduma berezi gisa hasi zen, eta kolekzio honen zabalkuntza handia zela eta, laster gela txiki pare bat utzi zizkiguten bertan. Beste langile-rik ez zegoenez, Jonek berak irekitzen zuen bilduma publikoa-rentzat. Virginia Jacobsen, euskal gaiak aztertu dituen hiz-kuntzalari ezagunaren emaztea zena, astean hogeitau ordu bolun-tario-lanetan laguntzen hasi zitzaigun, eta honela liburutegia



ordu erregularrezirekita eduki ahal izan genuen. Halere, optimismoz beteriko urteak ziren haiek. Ni gaztea nintzen, Jon ero samarra, eta ondo pasatzen genuen. Egun bakoitza desafio bat zen eta nahi genuen erara itxura genezakeen Mintegia. Txapel guztiak bion buruetan genituen. Ikerlariren batek liburu-bilduma ikusi nahi zuenean, geu irtengo gintzaizkion aireportura, gehienetan geure etxeetan lo egingo zuen, geurekin jan, eta geuk erakutsiko genizkion inguruak. Nevada-ko edozein talderi gure Mintegiaz mintzatzeko prest egoten ginen.

Honelaxe hasi zen Mintegia gaur egungo itxura hartzen. Liburu-bilduma hazi zen eta nazio-mailan entzutea hartu zuen; 1969an "newsletter" orri berriemailea eta Euskal Liburu Saila ateratzen hasi ginen; hurrengo urtean Jonek Euskal Herrira ekarri zuen lehen ikasle-taldea; hizkuntz eta euskal kultur kurtsoak eskaintzen genituen unibertsitatean; Jonek eta biok euskaldunei buruzko ikerketari eman genion hasiera, gerora *Amerikanuak* liburuan gauzatuko zena. Gure arazo bakarra dirua zen.

Beraz, luzarora begira, Mintegiaren instituzionalizatzea nahitaezkoa zen. Jon Bilbao unibertsitateko liburutegira transferitzea eskatu genuen; denbora erdiko sekretaritzaz ere bai; liburutegia egin zen Euskal Mintegiaren arduradun administratiboa. Ikerketa-funtzioak, nerekin lotuak, lehengo tokian jarraituko zuten. Unibertsitateko ordezkariak onartu egin zuten gure plana baina bere arazoak izan zituen estatuko legislatura iritsi zenean; Robert Laxalt-en lana erabakiorra izan zen une hartan. Urte batzuen buruan nere postua ere Reno-ko Unibertsitatean kokatuko zen. Hauek dira, bada, gure hastapenetako zenbait puntu nagusi.

## MINTEGIA ETA EUSKAL-AMERIKAR KOMUNITATEA

Goian Robert Laxalt, Jon Bilbao, eta hiruron arteko harremanetara mugatu banaiz, hiru mosketeroen gisa misio ezinezko baten atzetik, orain Mintegia eta euskal-amerikar komunitatearen arteko harremanak aztertu nahi ditut. Komunitate hau, eta "Euskal-Amerikar" nozio bera ere, ez dira gauza bakar eta zehatzak, mota ugari eta sorterrizko nazio desberdinak

baitaude talde honen baitan. Noski, euskal jatorrikoa izatea ez da aski euskal arazoez arduratzeko; euskaldun sentitu izan behar horretarako. Azken hauen artean zabaldu izan dira gure lanak.

Mintegia sortu zenean, 1960ko hamarkadaren azken urteetan euskal-amerikar populazioa oso barreiatuak zegoen artzantzaren ondorioz. Herri txikietan zeuden giza taldeak, euskal hotela izaki beren presentziaren adierazpen nagusia. Zentru urbano handiagotan ere —Reno, Boise, Stockton, Fresno, eta Bakersfield, San Franzisko eta Los Angeles-en— baten euskaldunen ezaugarriak. Jadanik artzantzaren ez aritu arren, artzain ohiak eta hauen seme-alabak ziren batipat. Gehienak eskulanez bizi ziren: jardinaritza, esnelana, etxagintza. Zenbait negozio txiki ere bazuten, eta euskal sukaldaritzaren izen ona kontutan hartuz, zenbait jatetxe eta gozotegi ere bai. Bestalde, ehun urte baino gehiagoko euskal emigrazioa ez zen uniforme: “euskal frantsesak” Kalifornia-ra zuzendu ziren lehen mendetik; bizkaitar berantagoak Oregon-eko ekialdera, Idaho-ko hegoaldera eta Nevada-ko iparraldera; Les Aldudes-ekoek Buffalo, Wyoming-era. Probintziaz eta belaunaldiz zatitutako euskal mosaiko bat zegoen.

1959ko jaialdia izan zen euskaldun talde guztietako jendeak bildu zituen lehen gertakizuna. Haren ondoren zenbait herritako euskaldunek klubak edo Euskal Etxeak sortu zituzten eta euren jaialdiak eratzeari ekin zioten. Dantza-taldeak ere eratu zituzten. Hauek izan ziren euskal elkarten sorreraren lehen urratsak. Hamarkadaren erdialdera Euskal Jaialdi Nazionala antolatu zen Elko-n eta komunikabideetan oihartzuna jasotzen hasi zen. Bi norabideek —bai euskal-amerikar kulturari proiektio publikoa emateak, bai euskal jatorriko jendeak beren nortasun etnikoaren barne-kontzientzia hartzeak— elkar uztarturik hartu zuten indarra. Euskaldun sentitzearen joera zenbait gertakizunek bultzatu zuen. Hauetako bat krisi demografikoa zen; jadanik 1920ko hamarkadan Estatu Batuetako emigrazioaren aurkako legeak gogortu egin ziren; 1950eko hamarkadan legislazio berria egin zen euskal artzainen alde, baina ordurako artzantzari eskainitako lurraldeak oso murriztuak zeuden, eta gero eta gehiago, Mexiko, Peru eta Txiletik

zetozen artzainak. Bestalde, amerikar gizartean sustrai etnikoak ospatzeko joera modan jarri zen.

Kontutan edukitzeko beste puntu bat ere bazegoen: mintegi akademiko bat sortzen ari ginen gure erreferentzia nagusitzat edukazio formalari estima berezirik ez zion gizataldea harturik. Herri txiki eta ruraletatik etorritako emigrazioak ez oso literatur eta akademia zale izateko arrazoiak ulertzea ez da gaitza. Ez zen hau kasua beste lurraldeetara emandako euskal emigrazioan, zeren Mundu Berria aurkitu zenetik profesionalak (administratzaile, apaiz, abokatu, mediku, kazetari, etab.) aurrean egon baitira bentura kolonialetan; Hegoamerikan ez bezala, non hizkuntza eta errekonozimendu profesionala segurtatuak baitzeuden. Euskal Herriko karreradunarentzat Iparamerikan lanbide hauetan ihardutea ia ezinezkoa zen.

Estatu Batuetan finkatutako beste emigrante-taldeek beren erakunde etnikoak, elizak, egunkariak, hainbatetan eskolak ere bai, sortu ohi dituzte. Euskaldunak salbuespen bat izan dira honetan. Arrazoi nagusia: euskaldunak beharrezko zen kopuru edo kontzentrazio geografikora iritsi ez izatea. Aldi berean, euskaldunek ez zuten beren lurraldean gertakizun ikaragarririk sufritu emigrazio masiboa eman zedin. Joan zen mendeko Gerra Karlisten garaietan nahiago zen Hegoamerikara, Kubara, Puerto Rikora edo Filipinetara joatea. Gerra Zibilak ere, errefuxiatu ugari behartu zuen eta Hegoamerikako nazioek ateak zabaltzen, baina Estatu Batuetan errepublikar "gorri"en aurkako jarrera nagusitu zen, Bilbotik Euskal Gobernuak bidalitako hurrei ere uko eginez. Euskal-amerikar komunitatean ez zuen inork hauen alde ahotsik altxatu, berau inolako erakunde edo lidergorik ezaren seinale delarik.

Hitz batez, Mintegia martxan jartzean ez genuen uste honek euskal-amerikarren kulturaren eragin handirik izango zuenik. Aldi berean, nik ez nuen uste euskaldunek Mintegiari laguntza emateko aparteko obligaziorik zutenik. Nere helburu nagusia, Etxalar eta Murelagan bezala, eurekin harreman onak egitea zen gero ikerketa antropologikoa bideratzeko.

Nere ustez, euskal komunitate amerikarrean ustegabeko eragina izan zuen lehen lana, Mintegiak sortu zuen "newsletter" edo urteko berrien zerrendaz eginiko buletin izan zen. Eus-

kaldunek beren aldizkari zein egunkaririk ez zutenez, buletina hasi zen haien zeregina betetzen. Gure lehen zerrendak 4.500 izen zituen, eta nola osatu genuen zerrenda hau euskaldunek beren artean zuten komunikazio-ezaren froga izan zen. Herri desberdinetako telefono-liburuekin eseri nintzen (Boise, Reno, Buffalo, Bakersfield, Chino, Elko, etab.) euskal abizenak bilatzeko. San Frantzisko eta Los Angeles-eko kasuetan beste taktika hartu nuen: Aguirre edo Echeverria bezalako izenak hainbeste txikanoren eta mexikarren artean baliogabeak zirenez, frantses-euskaldun deiturretara mugatu nintzen.

Era honetan osatu genuen gure lehen zerrenda, gero, urte-tan zehar, bikoiztu egin dena. Laster ohar-tu ginen, geure berrietatik aparte, euren berriak ere beharrezkoak zirela. Euskal Etxeatatik berri ugari etorri zitzaigun eta garbi zegoen hauen ekintzen, heriotzen, eta abarren berri ematen hasten baginen aldizkari etniko bihurtuko ginela. Harpidetza librea jartzea erabaki genuen, propagandarik gabe, eta ale bakoitzean artikulua labur eta erraz bat txertatzea euskal gairen bati buruz. Horri edo buletin honi esker, euskal-amerikarrek elkarren berri gehiago eta beren sustrai etnikoen ezagupen sakonagoa dute. Bestalde, Reno-ko Mintegia euskaldun askoren bisita-gune ere bihurtarazi zuen orriak.

Hasieran buletinaren zeregin nagusia unibertsitateko prentsak aterako zituen euskal saileko liburuei publizitatea ematea zen. Robert Laxalt-enetik aparte ez zegoen euskaldunei buruz ingelesez idatzitako libururik. Rodney Gallop-en *A Book of the Basques*, 1930ean aterea, baina aspaldi agortua, berrargitaratzea erabaki genuen. Bi urtetan unibertsitateko prentsak ez zuen ezer egin diru-faltagatik; ordurarte jasoak genituen donazio guztiak (\$3.500) publikazioa segurtatzeko eskaini ondoren eman zitzaigun baiezkoa. Liburuak ikaragarritzko arrakasta izan zuen, hamar mila aletik gora salduak dituelarik. Veyrin-en *Les Basques* eta Caro Baroja-ren *Los Vascos* ere itzuli eta argitaratu nahi izan genituen, baina ezinezkoa izan zen. Liburu-saila eskuizkribu originalak erakartzen hasi zen eta bitartean unibertsitate-prentsetan eskaintzen diren argitalpen espezializatuetako kasurik arrakastatsuenetakoa bihurtu zen. Azken hogeitun urteotan euskaldun edo euskal-amerikarrei buruz

ingelesez publikatu den ehuneko larogei, sail honetan atera da.

Mintegiaren zereginekin lotura berezia duten bi titulu aipatuko ditut: *Amerikanuak* eta *Euskara-Ingeles, Ingeles-Euskara hiztegia*. Lehenaren asmoa Elko-rako bidean egun elurtsu batean hartu genuen Jon Bilbaok eta biok. Euskal kulturaz ikastara ematen ari nintzen bertan, eta egun hartan Jon zen nere hizlari izatekoa. Eguraldia hain zen txarra, normalean bost orduko bidaiak denak hamar ordu eman zizkigun. Bidean Joni neure frustrazioa agertu nion euskal-amerikarrez inolako lanik ez zegoelako, eta azkenik, Mendebaleko Amerikako euskaldunei buruzko kolaborazio-ikerketan murgiltzeko prest al zegoen galdetu nion. Antropologo eta historigileen arteko elkarlanak ez ziren ohitura, eta ez genekien zertan sartzen ginen. Handik sei urtera lan hibrido bat burutu genuen, hiru kontinente eta bost mendetara luzatzen zena; euskaldun batek nola 1950ean Nevada-n artzain amai zezakeen jakiteko, euskal emigrazioaren kuadro zabalagoa dibujatzea nahitaezko zela erabaki genuen. Artzain-bordak, artxiboak, euskal hotelak, Hegoamerikan zehar barreiatutako Euskal Etxeak bisitatzerak behartu gintuen proiektuak. Hain zabala izaki, aurretiko lan gisa ikusi genuen liburua, beste batzuek zuzendu eta zabalduko zutena. Denboran zehar guk uste baino hobeto iraun du; euskal-amerikar historiaren konpendio bilakatu da eta, haien errealitate kulturala aztertzerakoan, lehen oinarri.

Hiztegiaren proiektuak oraindik gehiago iraun zuen. Hasi-  
ran urtebeterako edo birako pentsatua zegoenak, hamar urte behar izan zituen. Lehen pausoa \$50.000 dolarreko beka lortzea izan zen Luis Mitxelena Reno-ra etor zedin Azkueren hiztegia osatuz Euskera/Ingelesa bertsioa burutzera. Oraindik ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik Mitxelenak atzera egin zuen eta bekaren dirua itzuli egin behar izan genuen. Gorka Aulestiak jaso zuen hiztegiaren asmoa. Zenbait kolaboratzaile-  
ren laguntzarekin, Linda White autore-kide izanik Euskera/Ingeleskoan, eta diru-arazo etengabeak gainditu ondoren, Gorkak burutu ahal izan zuen proiektua. *Amerikanuak* lanak historia berreskuratu zien bezala, hiztegiak beren hizkuntzarako atak ireki zizkien euskal-amerikarrei.

Esan bezala, herri nagusietan Euskal Etxeak sortzen ari ziren. Baina ez zuten elkarren arteko loturarik. Argentinako zenbait Euskal Etxe ikustatu genituen gure ikerketetan eta Joni atentzioa eman zion erakunde orokor baten partaide zirela guztiak. Reno-ra itzultzean Jonek klubetako ordezkarietara bilera bat eskatu zien Estatu Batuetan antzeko erakundea sortzeko ideia aztertzeko. Ni ez nengoen horren alde, ez bainuen uste hori zela Euskal Mintegiaren zeregina, baina bat nentorren katalizadore modura erabil genezakeela. Hementxe, unibertsitatean, egin zen bilera hori eta ahalegin eta frustrazio ugari jasan ondoren sortu zen NABO erakundea (*North American Basque Associations*). Jon izan zen aita espirituala. Gerora NABOk zerikusi handia izan du hogeitik gorako euskal klubetan artean eta Euskal Gobernuarekin ere harremanak eraikitzen. Agian, erakunde honentzako garaia ailegatua zen eta edonola sortuko zen, baina, nolana ere, Mintegiari zor dio jaiotza.

Jonek utzitako beste emaitza kanpoko ikastaroen kontzeptua da. Euskal-amerikarrek Euskal Herria bisitatu eta han ikasi ahal izateko bidea jartzea zen bere ametsa, turistena baino esperientzia egiazkoagoarekin itzul zitezen. Honek ere urduri jartzen ninduen eta nahiago nuen horretan ez sartu: irakaskuntza baino lehenagoko lana genuen guk ikerketa; bestalde antolakuntza lan handia eskatzen zuen. Lauzpabost udatan eratu genuen ikastaroa, baina 100 euskal-amerikar gaztetik gora jarri genituen beren jatorrizko kulturarekin aurrez-aurre. Kopurua baino garrantzitsuagoa izan zen ikasleen kalitatea, beraiek izango baitziren gero euskal kulturaren zabaltzaileak. Han zegoen, adibidez, Peter Cenarruza Idahoko Estatuko Idazkariaren semea, gero aita Euskal Herrira ekarri eta euskaltzale amorratu bihurtu zuena. Geroago, udako ikastaro hauek urte guztiko ikastaroa Oinatin eratzeraz eraman zuen Boise-ko Unibertsitateak; gaur egunean, Carmelo Urza-ren gidaritzapean, amerikar unibertsitate elkarte batek Donostian kokaturik du urte osoko ikastaro hori. Hemen ehundaka amerikar ikasle, hauetatik berrehun baino gehiago euskal jatorrizkoak, euskal kulturaren berri izan dute. Beraz, oraindik ere, Mintegiak euskal-amerikar gazteengan eragina gordetzen du eta, hauen bidez, Mendebaleko Amerikak Euskal Kulturaren etorkizunean ere bai.

Beste zenbait eratan ere Euskal Mintegiak eman dio edukina euskal-amerikarren nortasunari. Reno-ko euskal liburutegiak nazioko eta atzerriko ikerlariak erakartzen ditu. Liburutegien arteko prestamenak direla medio, euskaldunei buruzko informazio preziatua zabaltzen dugu. Era berean, bertako euskaldunentzat artxibo ezin hobea da gure kolekzioa; zabaltzen doan testu oparo eta aparta bezala ikus dezakete, euskal kulturaren berezitasunaren lekuko. Nazio Batuetan eserlekurik ez duen herri batentzat harro sentitzeko arrazoia da hau. Euskaldunei buruz milaka laguni hitzaldiak eman dizkiete Mintegiko kideek; askok ikusi dituzte gure argazki eta diapositiba-erakusketak. Ehundaka ikaslek hartu dituzte gure kursoak hemen, Nevada-ko Unibertsitatean. Argitaratu ditugun hogeitamar tituluetatik zenbaitek irakurri ote duen bat ala beste ezin daiteke jakin. Estatu Batuetan gauzatzen diren euskal gertakizun kultural nagusiei errespetagarritasun akademikoa ematen saiatzen gara. Laburbilduz, Iparramerikan euskaldun gaietarako zentru nazional eta informazio-iturri nagusi bihurtu gara.

Harrokeriarik gabe, badirudi gure ahaleginak ez direla alferrikakoak izan. Halere, Mintegiaren eta euskal-amerikar komunitatearen arteko harremanaz hasieran egindako galderari ezin diogu erantzun garbirik eman. Ezinezkoa litzateke erlojua hogeitabost urte atzera itzultzea eta urte hauek Euskal Mintegirik gabe berbizitzea. Euskal-amerikarrek edonola gordeko zuten beren tradizioa, baina gaur egun denetik, desberdina izango zen. Nik uste diferentzia horren zati handi bat Mintegiari zor zaiola. Lortu dugunagatik denok harro egoteko arrazoia dugu. Ni halaxe nago.

Moldatzaile eta  
euskaratzailea:

*JOSEBA ZULAIKA*

**OHARRA:** Lan hau William Douglass-ek Reno-ko Unibertsitatean 1992ko apirilean Euskal Mintegiaren 25. urtebetzea zela eta eskainitako bi hitzaldiren laburpena da. Joseba Zulaikak laburtua eta euskaratua dago.